


ezagutzen al duzu Donostia?

Astiñene eta Loiolako zubia

Egiatik Loiola aldera abiatzen garenean *Piñuetako Aldapan* behera jaitsi gara, ibai ondora heltzean baserri zahar batekin topo egiten dugu. Etxe honek bere aurrekalde polita zurez eta adreiluz egina eta ibaiari begira dauka, *Astiñene* deitzen da beti Egiako izan den baserri hau. *Astiñene*, *Egiako Kostan* dago, untxiola bat izan zen, eta *Astiñene* «*Astilleroene*»-tik dator. Egia auzoa beti Urumearen ertzeraino izan da; Loiola auzoa berriz ibaiaren beste aldekoa izan da beti. *Loiolako koartelak* deitzen dira gaur egun, baina zuzenago izango zatekeen *Egiako koartelak* deitu izan balira, Egian baitaude. Non gelditu



zaigu *Egiako Kosta* xar-manta hura? Hain desitxuratua dago ezezaguna dela gaur donostiarrentzat! Oroitzapen hura argazki zahar batzuetan gelditzen da bakarrik.

Astiñene baserriaren ondoan eraiki zen joan den mendean *Loiolako Zubia* (eta ez *Sarasola*

zubia plano berri batzuetan agertzen den bezala). Zubi hau, Urumea zeharkatzeko harrizko aurreneko zubia dugu. Honen ondoren egin zen Ergobia-koa, hura baitzen ordura arte ibi nagusia eta han Murgiatarrek «peagea» kobratzen zuten ibia zeharkatzeagatik. Loiola-

ko zubia Hernaniko bidea errezteko egin zen eta honela Astigarragako «ahaide nagusi» haiek «bezerorik» gabe gelditu ziren, bidaiariak Loiolako zubi berriatik joaten baitziren.

JOSU TELLABIDE

ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ

KILIKOLO

U r t e b e r r i o n

Aita Larroka, 10, GROS- Donostia - 273107

PARSIFAL

MUSIKA KLASIKOA ETA BESTE ZERBAIT

San Marcial, 50 Tfnoa.: 42 87 43 Donostia

- COMPACT DISC
- L.P.
- KASETEAK

BEST

hizkuntz
akademia

ingeleseko
ikastaro
trinkoak

Portu, 14 1º.
Tfnoa.: 425915